

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

CSI Egipto: Kleopatraren hilobiaren bila

EGIPTO, K.A. 30.EKO ABUZTUA. Kleopatra VII.ak, antzinako Egiptoko azken erreginak, bere buruaz beste egin zuen. Iras eta Charmion neskameei frutaz betetako saski bat eramateko eta bertan aspis bat sartzeko eskatu omen zien. Eta aspisak helduta hil zen. Egiptotarren porrotaren ondorioz, antzinako zibilizazio handia Erromako probintzia soil bihurtu zen eta Oktaviok erregina Erromako kaleetan erakutsi nahi zuen garaipena ospatzeko. Umiliazioa jasan baino lehen hiltzea aukeratu omen zuen Kleopatrak. Oktavioren hainbat soldadu gertaeraren lekuko izan ziren eta sugeak ezkerreko besoan kosk egin ziola esan zuten.

Horixe izan zen bertsio ofiziala. Baina *The Sunday Times Magazine* aldizkariko 2004ko artikulua baten arabera, ustez lekuko izan ziren soldadu horiek Kleopatra hil egin zuten. Hortaz, suizidioaren bertsioa Oktavioren jokabide okerra estaltzeko maniobra baino ez zen izan, beti ere aldizkariaren arabera.

Zalantza horiek argitzeko grinagatik edota, besterik gabe, pertsonaia historiko ezagunentarikoa batek pizten duen jakin-minagatik, Kleopatraren hilobia, 2.000 urtetan aurkitu ez dena, egiptologoen jomuga preziatuenetarikoa da. Azken hamarkadan, teknologia berriei esker, egiptologian aurrerapen handiak egin dira eta, besteak beste, Kleopatraren hilobia aurkitzeko zorian daudela adierazi du Zahi Hawass adituak.

Niloko azken erreginaren arrastoak Borg el-Arab inguruan (antzina Taposiris Magna) leu-

Elizabeth Taylor-ek Egiptoko erreginaren rola jokatu zuen Joseph L. Mankiewicz-en *Cleopatra* (1963) filmean. Zinean erromatarren bertsio ofizialaren arabera irudikatu dute erreginaren heriotza. Baina Kleopatraren hilobia topatuz gero, beharbada bertsioa aldatu egingo da.



deke, Alexandriatik 50 bat kilometrora. Ere-mua radar bidez arakatzen ari dira eta, oraingoz, Kleopatraren busto bat, haren aurpegia duten hainbat txanpon eta hainbat ganberako tunel bat topatu dituzte.

Oktaviok erreginaren nahia bete bazuen, Kleopatra Marko Antoniorekin batera ehortzi zuten. Horrenbestez, aurki, historiako maitale bikote ospetsuenaren misterioak argitu litezke.

Arrastoak

Brown eta Howard, historiari ostikoka



Angels and Demons filmaren une bat.

ANGELS AND DEMONS filma arrakasta handia biltzen ari da, ikusle kopuruari dagokionez, *The Da Vinci Code* Dan Brownen nobelan oinarritutako eta Ron Howardek zuzendutako aurreko lanak egin bezala. Ikuspuntu historikotik, aldiz, porrota merezi dute liburuak zein filmak. Besteak beste, data asko oker daude,

Kontzilioak etengabe nahasten dira, Satan hitza arabieratik datorrela esaten da —arameeratik dator— eta milurteko eta erditik gorako tarteari ez zaio jaramonik egiten: protagonistak dio Kristoren sakrifizioak jatorri azteka duela, baina azteken eta kristauen zibilizazioek ez zuten XVI. mendera arte topo egin.